

12
1909-garren urteko Agorrraren 19-an

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO GUZTIZ ARGIDOTARRAREN AURREAN

JESUS MARIA ECHEBERRI-tarrak

Plasenzia'ko Doctoral eta Probisore jaunak

ERNANI'KO ELIZAN EMAN ZAN MEZA NAGUSIAN

EGIN ZUAN

SERMOYA



Lenengo aldiz argitaratua EUSKAL-ERRIA-n



SAN SEBASTIAN

IMPRESA Y ENCUADERNACIÓN DE J. BAROJA É HIJOS

Plaza de la Constitución, 1, 2 y 3

1910

51V

24403



A- 50312

F- 50328

ATV
24401

1909-garren urteko Agorraren 19-an

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO GUZTIZ ARGIDOTARRAREN AURREAN

JESUS MARIA ECHEBERRI-tarrak

Plasenzia'ko Doctoral eta Probisore jaunak

ERNANI'KO ELIZAN EMAN ZAN MEZA NAGUSIAN EGIN ZUAN

SERMOYA



Lenengo aldiz argitaratua EUSKAL-ERRIA-n



SAN SEBASTIAN

IMPRESA Y ENCUADERNACIÓN DE J. BAROJA É HIJOS

Plaza de la Constitución, 1, 2 y 5

1910

SEBASTIAN



SERMOYA

*Justitia elevat gentem: miseros autem facit
populos peccatum.*

*Justiziak jendea goratzen du: pekatuak
erriak errukigarri egiten ditu.*

(Proverb. XIV-34.)

BERORREN BAIMENAREKIN APEZPIKU JAUNA (1):

GOI-GOITIKO DIPUTAZIOA.

ERNANI'KO AYUNTAMENTU ARGIDOTARRA:

NERE ANAI MAITEAK.

ERRI bat aundia dan jakiteko bere mugai bakarrik begiratu bear ez zaye.

Lurrez edo jendez chikiak diran erriak, egal zabalagoak eta jende ugarigoak dituztenak baño aundiagoak izan ditezke.

Egi au kondairak erakusten digu.

¿Nun, anziñako denporetan, Grezi-tarren erria beziñ argidotarrik eta ots aundiagokorik aurki liteke? Bere jakintsuak, bere eskolak, bere legeak, bere gudariak, bere artistak, bere pestak, bere jauregi eta echeak.... munduan aomen aundikoak izan ziran, eta argatik begiratu izan zitzaion erririk aundienari eta errien irakasle eta gialariari bezela. Eta gauza jakiña da, Grezia-ko erria, ichas ertzean etzanik bezela bizi zana, erri labur bat zala, eta bera, puska askotan zatitua, erreinu edo eresuma asko bere barruan zituena.

Baño egi au kondairak baño lenago eta obeto Jaungoiko gure Jaunak erakutsi zigun, Proberbioen liburuan dion bezela: «Justiziak go-

(1) Bitoriako Apezpikua.

ratzen duala (au da aundi egiten duala), jendea, pekatuak erriak errukigarri egiten dituala. »

Ona emen erresuma baten aunditasunaren azi edo zimendua bilatu bear dan bidea.

¿Zer balio dio erri bati lur zabalak, aginte aundiak, martizti garailariak, jauregi ederrak, aberastasun ugariak edukitzea baldin, justizia alde bat utzita loikerian eta pekatuan bizi bada? Ez aundia, baizik errukigarria ta doakabea da onelako erria.

Justizia gordeaz bizi dan erria, au da, bertutetsua izatea sayatzen dena, artu-emanetan betdiña, oiturretan garbia, itz batean: Jaungoikoaren legea gordeaz bizi dan erria, da benetan aundia, bada onek izango du bakea, eta baketasunaz beste ondasun guztiak (1).

Au gure Euskal-erri maiteak erakusten digu.

Euskal-erria lurrez eta jendez beste edozein erri baño chikiagoa da.

Ez ditu guda ikaragarritz beste erriak menderatu, eta ezdare onela bere aginte eta mugak zabaldu.

Emen, ichas-ertz onetan, bizi izan-da beti mendi-tartean ezkutaturik, bere lur maiteari josirik, bere itzkuntz gozoa, bere lege ederrak eta bere oitura garbiak gordeaz, eta bere baserria, bere ibar-zeluyak, bere basamortuak, bere erriko elizachoa maitatuaz. Eta ala guztiaz ere, aundi ta eder, garbi ta chukiñ eta biotz aundikoa gure begien aurrean agertzen zaigu, kontuz bere kondaira irakorten badegu.

Munduan aomen aundiko erresumak izan ziran, guda ikaragarrien bidez beste erriak menderatu zituztenak, gudari eta martizti garrai-ekkorak izan zituztenak. Miragarriak ziran, ondo begiratzen bazaye, oen Enperadoreak, oen korteak, oen errege-echeak, oen aberastasanak, oen urriak.

Eguzki edo sort-aldean Asiria, Babilonia, Persia eta Egipto, eta sart-aldean Alejandro aundiarena eta Erromakoa, lurrez eta agintez goyenekoak izan ziran. Biña orain ¿non dira? Puzoitu ziran, lizundu ziran, usteldu ziran justizia alde bat utzi zutelako, eta pipiak jota usteldurik erortzen dan zuaitza lez, izendatu ditugun bazter oyek auts egiñik oso ondatu ziran, euren martizti, Enperadore, lege eta beste gauza guztiakin (2).

(1) Egi au jentillak eurarik alortu izan dute, bada eurret-ko inzkribitzalle batzuek diotenez, oitura on ta garbiak zituzten bitartean, aundi egin zirela, ordea oitura on oek utzita charrak eta galxoak artu zituztenez, ayen galmona etorri zala.

(2) Ona emen Erroma aundiaren akabera nolakoa izan zan. Bere lenenyo denboretan oitu-

Euskal-errian orrelakorik gertatu ez da. Au, millaka urteak igaro ta ere, emen dago mendi tarte oetan. Ekaitz ikaragarriak, iparbeltz ezinda aundiagoak sortu izan zayo, ugalde, dena ondatzeko adiña direnak bere gain etorri zayozka, baña alere, ichas baztarrean baga edo olatuakin beti burrukan dabillen arkaitzaren gisara, beti geldi, bere oñean egon izan da, erori gabe, auldu gabe, bere legeak, bere itzkuntz eta bere oitura garbiak gordez. Erriak milla bider egiñ ta desegiñ dira, gora-bera aundiak munduan ekusi dira, baitare izan dira lurikara beldurgarriak erreinurik irmoenak ondatu dituztenak, eta ala guztiaz ere Euskal-erriak badirau eta ainbat lan eta neke igaroaz gero, emen, gure begien aurrean daukagu.

¿Baña Euskal-erria oraindik ere bizi da? Bai, zauriturik badere, bizi da. Bere semeak gera, Onen bularretatik bere titi gozoa edoski degu. Bere itskuntz ederra erakutsi digute, bere legeak ezin da obeak dauzka bere biotzean guretzat gorderik. ¿Au gauza miragarria ez da? ¿Errroma-tarraz, Godoaz, Mairuaz aiñ gogor peliatu zan erri bat, oraindik ere munduan, naiz da zauriturik badere, bizirik aurkitzea gauza miragarria ez da?

Onezaz gain Euskal-erria goyeneko mallara bere seme leyalak jaso dute. Jaungoikoak Euskaldunari, adimentuan argia, eta gauza askotarako biotz aundi bat eman dio. Eta, ¿nork ez dakizki zenbat gauza argidotar emengo semeak egin dituzten ala ichasoz nola legorrez, ala jakindurietan nola gudetan? ¿Nork esan Euskal-errian eman dituan gizonak Elizgauzatarako, erriak zintzo gobernatzeko eta osteroutzeko jakiundetako?

Esan dezagun bada Euskal-erria beti aundia eta ederra izan daia.

Bañan edertasun ori ¿nondik sortu zan?

Euskal-erriari aiñ iraupen aundia ¿nork eman zion? ¿Nork orren mardul eta osasungarri egin zuan?

Guk oni begiratu bear diogu : jakin dezagun, Euskal-erria zerk aundia egin zuan, eta onela, gure aurrekoen oiñ-arrastoak jarraituaz, guk ere Euskal-erria aundi ta eder gorde dezagun.

Bai, Euskal-erriaren errayetaraño, animaraño gure ezagueraz sartu

ra onak izan zituan bitartean, beti igotzen, aunditzen, bosteren lur rak menderatzen jua zan Igo ta aunditu zan munduko jabe izateraño; eta alibeste lurren jabe ekusi zanean, Erronko jendea nagitu zan, kutizi gaizto guztietara biortu zan : *Panem et circenses* : ogia eta pestak buizik eskatzen ezuan, barruko usteltasunak hatetik eta bestetik inguruan zituan *barbaro* eta jende arrotzak zeoro ondatu zituen. Ordea *barbaro* ayek etzuten menderatuko, barrera sano eta gogor egon balitz.

bear gera, an, aunditasun onen azia ekus dezagun. Eta onela egiten badegu, bertatik ekusiko degu azi ori izan dala, aurrez aipatu degun justizia, justiziari euskaldunak izan dion amorioa.

Erlijio Santuari amorio izan ziolako, bere lege ederretan eta bere oitura garbietan Euskal-erriak justizia maitatu eta gorde zualako, aundia izan san.

Ona emen nere itzaldiaren gaya; aundia ta nekeza da, nere indarra gañez egiten diona; eta nere lanari ekin baño lenago, iduritzen zait, egoki izango dala Diputazio goitikoari eta erri onetako Ayuntamentu argidotarrari dagokion agurra egitea.

Nik zugan, goi-goitiko Diputazioa, gure antziñako denbora oroi-mengarri ayetako Diputazio-en eta Elkarte-en itzal beneragarria eta antza ekusten det, eta begiramenturik aundienaz agur bat egiten dizut, ayen pausuak jarraituaz, gure erri maitean oitura onak gorde ditezen eta bere ondasunak ugaritu ditezen alegiña egiten dezulako. Emen gaur itzaldi bat egitea oura aundizat daukat, nola-bait ere nere itz motel eta ez jakiñakin, Euskal-erriaren edertasun eta goitasuna aditzera emanaz, eta eskerrak ematen dizkitzut lanbide onetarako aukeratu nazulako. Baita-re beste agur bat Ernani'ko Ayuntamentu guztiz prestuari Diputazioa'ren gogoak beteaz, pesta eta eginkizun oek orren egoki antolatu ditualako. Eta oraiñ nere anai maiteak Jaungoiko gure Jaunari bere laguntza eska dezayogun esan dedan nere gai au bear bezela adierazi dezadan; onetarako zeruko Ama Maria bitarteko jartzea egoki deizkiot, esan zayogun bada guztiok Aingeru Gabriel Santuaren otoiz ederra.—AGUR MARIA.

I

Erri bakoitzak du bere bizikera edo izateko modua, eta gizonak aurpegiz, soñez, oituraz, griñaz banakatzen dira; batzuek dira erlijio-soak, besteak gudariak; batzuek artistak, besteak jakiundetan abillak; batzuek sal-erosian sayatzen direnak; besteak *industri* eta *pabrika* lanetarako oso pizkorrar. Baña erriak bere bizikera edo izateko moduan agertzen dituzten gauzak, ala legeetan nola oituretan, ala itz-neurtuetan nola jostaketa, jazkera eta beste gauza guztietan, bere espiritutik, bere barrenetik sortzen dira; eta erri baten sinismen, gogoeta ta zaletasunak nolakoak, alakoak izan oi dira ere bere eginkizunak, bada azitik landareak, eta landaretik loreak, eta loretik pruitua sortzen

diran lez, esan diran gauza oyetatik erri baten eginkizunak sortzen dira. Euskal-erriari begiratzen badiogu, bertatik ekusiko degu beti izan dala eta oraindik ere dala erri erlijiosoa, sinismen aundikoa, fede bizikoa, Jaungoikoari zor zayona eman naikoa. Nora nai begiratzen degula egi au argiro agertuko zaigu. Antziñako denboretan, Euskalduna, kondairan lenengo agertzen zaigunean, Jaungoiko egiazko bat bakarra ezagutuaz agertzen zaigu.

Ujola edo dilubioaren ondoren, gizonak munduan banatu zira-nean, geyenak, Jaungoikoaren erakutsiaz, onen legez eta oni zor zitzayon jayeraz laister aztu ziran; oen artean Jaungoiko egiazkoaren ezagüera illundu eta oso galdu zan; eta Jaungoikotzat gezurrezko Jaungoiko ustelkor eta illkorrak artu zituzten, Euskal-errian ez zan orrelakorik gertatu. Euskal-errian Jaungoiko egiazkoaren sinismena beti gorde izan zan, inzkribitzalle askok arrazoi irmoakin adierazten duten lez (1). Nik oraiñ astirik ezdaukat arrazoi oek agertzeko, baka-rrik esango det, Jaungoikoaren izenak berak, gauza guzien egilleari Euskaldunak eman zioten izen onek, aditzera ematen duala Euskaldunak Jaungoiko batean, munduari goitik legeak ematen dion Jaungoiko egiazkoan beti sinistu izan zuala. Ez du Euskaldunak iñoizere gezurrezko Jaungoikorik, Jaungoiko ustelkorrik ezagutu.

Jaungoiko egiazkoaren ezagüera illundu ez zan bezela, ez zan illundu ere Euskal-errian berari zor zayon jayeraren ezaguerarik, eta orregatik Euskal errian etzitzayen eskeñi Jainkotzat artu zituztenai doskañi ikaragarri eta lotzagarririk, eta oetako asko, gizonaren grña gaizto eta kutizi lizunari zegokionak.

Euskaldunak bere lurreen aldarerik etzioten jaso Grezia-ko, Erro-

(1) Euskaldunai dagokien gertaera onragarriak ontzat esan eraman dituzten inzkribitzalle arrotz batruak diote, guk esan degun ori esinditekean gauza dala. «¿Nola Euskal-errian Jaungoiko egiazkoaren sinismena gorde zitekean, baldin erri guztiak, Juduena ez besteak, Jaungoiko gezurrezkoak balak ezagutzen ez bazituzten? Orreraz gañera euskaldunak, Jaungoiko gezurrezkoetan sinisten zuten orri inguratuak zendeaz, eta nai ta nalez oekiu kutsutu bear ziran.»

Ezagutzen det garsi artan gaitz zala Jaungoiko egiazkoaren ezagüera gordetzea, baina nekeza izan arren, ezin zitekean gauza ez zan. Jentil-errietan bertan Jaungoiko egiazkoaren ezagüera gorde zuten pamiñak izan ziran (Irakorri beza-jakin nai dunnak «*Estudios Filosóficos sobre el Cristianismo, por Augusto Nicolás*»). ¿Nola bada au bera Euskal-errian ezin gertatu zitekean? Euskaldunak bera inguruko erriekin etziran naste, geyenean oekin guda gogorrean biri izan ziran, eta orregatik sinist liteke Jaungoiko egiazkoaren sinismenik etru-tela galdu. Antziñako kondairatzaileen artean *Estrabon*ek dio; euskaldunak J. bat eta au izenik gabea adorutzen zutela. Irakorri ezazu ere gai onetan Izagirre'tar Jose apaiz Jaunak, Bitoriko azitechean 1890-garren urtean egin zuan itzaldia. Aita Fidel Fitak (S. J.), *es pueblo monoteísta*, dio Euskal-erriagatik.

ma'ko, Fenizia-ko eta Kartago-ko Jainko gezurrezkoai, Jupiter, Benus, Bako, Molok, Astarte eta beste zenbat onelakoai. Euskaldunak ezituzten aldare arriak busti, Jaungoikoa onratzeko, gizonaren odolaz, ez-dare eskeñi aldare arri ayetan gauza lizunkorrik, beste auzo-erriak egiten zuten gisara, onela gizatasunari oura kenduaz. Euskaldunak Jaungoiko egiazko bat bakarra ezagutzen zuan eta Au kantuz eta beste modu askoz onratzen zuan.

Euskal-erriaren ondorengo etorkizunetan gauza oek zenbait zer ekusi izan zuten, eziñ dezakegu jakiñ eta esan.

Gizonaren bizimoduaren aziera eta sustraya erlijioa da, eta au nola-koa, alakoa izan oi da ere erriaren izatea. *Omnia religione moventur.* Jauza guztiak erlijioak darabilzki.

Orregatik Euskaldunak Jaungoiko egiazkoaren ezagüera zutelako, eta bertan erlijioa beste errietan baño ardura geyagoz gorde zalako, beste erri askotan baño obeto eta sanoago jendeak, pamilia eta oiturak gorde izan dira (1).

Onek nolabait aditzera ematen du, Jesukristo gure Jaunaren erlijioa munduan zabaldu zanean, Euskal-errian, erlijio santu au aïñ errez, gozoro, leun, odol-işurtze gabe, eta beste erri askotan ekusi ziran gogortasunik gabe sartu zala.

Beste erriak euren Jainko paltsoak eta euren oitura lasayak etzituzten utzi nai izan, eta nola Jesukristoren erlijioak erakusten duan, Jaungoiko egiazko bat baizik ezagutu bear ez dala, eta gizonaren grïña gaiztoai gogor egiñ bear zayela, ona zer dala bide erlijio santu oni eta onen ereilariai gorroto aundiaz begiratzen ziezten, eta martiri santu oen odola oparo işur-erazi zuten. Ez millaka baizik milloika izan ziran erlijio santu onen alde odola işuri zuten martiriak, bai Erroma'n eta munduko baztar guzietan.

Euskal-erriak ez zuan orrelakorik ekusi. Ez du orain arte inork ere arkitu Euskal-errian martiririk izan dan arrastorik, eta onek adi-

(1) Diotenak badira, Euskaldunak garsi ayetan oitura gogorrak zituztela. Au sritzekoa ez da. Beti gudan bizi izan bear zuan erri batek oitura gogorrak izates, bada gauza jakiña da, guda gizonaren biotza gogortzen duala. Baña Euskalduna gudan beti bizi izan zan bere lurra eta askatasuna malte zitualako, eta maitetasun onek Euskal-erria aundi egin zuan. Eta gauz oek aditzera ematen du, bere balio ezagutu zualako, etzuala işoren katibu izan nai. Eta orregatik, nals ta oitara gogorren batzuek izan, bere biotza eta bere anima beste erriak baño sanoago eta irmoago gorde zituan. Beste batzuek diote berriz, euskaldunak oso atzera, turik zeudela garai artan, bakardadean bizi giralako. Egia da Euskaldunak Erroma-tarren oitura leun eta biguñik etzutela, ordea ez da oen oitura lizunkorrik ere. Erroma oso usteldu eta galdu zanean, bakardadetik, Jermania-ko basomortuetatik etorri bear izan zuten, jende arrotzak, barbaroak Erroma berritzera. Euskal-errian ezan ezer berritu bear izan.

tzera ematen du Euskal-errian erlijio santua zabaldu zala orrelako gudarik gabe. Eta onen arrazoya agiria da. Euskaldunak Jaungoiko bakar batean sinisten zuten; Euskaldunak zeuzkaten oitura (1) garbiak eta onak, eta orregatik Euskal-erria zegoan era onean, sasoi ederrean Jesukristo gure Jaunaren erlijio santua artzeko eta maitatzeko (2).

Noiz edo zein denboretan Euskaldunak kristau egin ziran ez dakigu (3). Dakiguna da Euskaldunak Kristoren erlijio santua artu zuala bere biotz guztiaz, amoriorik aundienaz, eta orregatik esan diteke, munduan erlijio au geyago maitatu izan duan eririk ez dala izan; Euskal-erria, goyeneko mallara, erlijio onen besoetan igo dala; bere bizi guztia, bere legeak, bere oiturak, erlijio santu onetatik sortuak dirala; itz batean : erlijio santua izan dala Euskal-erriaren anima bezela, bizitza eta edertasuna alde guztietara zabaldu duana.

Euskaldunak alegiñ aundiak egin izan dituzte beti erlijio au bere onean eta irmo egon dediñ. Jauza jakiña da Euskaldunak, beste edozein gauza baño geyago bere bakardadea maitatu izan zuala, eta Españiako lurretan bizi ziran arrotzak in egundaño alkartu gabe, beti guda gogorrean ibilli zala; ordea Mahoma-ren jarraitzalle mairuzar ayek Españian sartu ziranean, eta Kristoren erlijioa estuasun aundian jarri zutenean, orduraño etsai izan ziran auzoakin alkartu eta bat egiñik, mairuen kontra eta erlijioaren alde peliatzera juan ziran, eta Saladon, Nabas-Tolosako-an, eta Sebillan, eta Aljeziras-en, eta Granadan, eta beste zenbait lekutan, mairuai oso Españititik esti eragin arte Euskaldunak gogor egin zuten euren zañetako odola oparo iñuriaz eta azaña aundiak egiñaz (4).

Amalagarren eunkidan, zorigaiztoan Euskaldunen artean auzi negargarriak sortu ziran : Oñaz-tar eta Ganboa-tarren guda, Euskal-erriari kalte aundiak erakarri ziozkana, ainbeste eche-erretze eta odol-iñurtzerekin. Erriak alegiñak egin zituzten etsaitasun ayek bukatu zitezzen. Baita ere Erregek asmo onekin neurri aundiak artu zituan. Ordea

(1) Menturaz norbaitek ezango du Euskaldunak arduragabe eta nagiak izan direla orrelako gertaerak inzkribatzeko, eta orregatik esdakigula Euskal-errian martiririk izan san edo ez. Ordea Eitza gai onetan ez da arduraben eta nagia izan, baizik kontu eta ardura aundikos. Aita Santu Klemente lenengook zazpi inzkribau, Erromako zazpi tokitan jarri zituan, an izan ziran martirien berriak letraz ezartzeko eta gordetzeko. Eta Erroman egin zuana, Eitzak beste erri askotan ere egin zuan, eta Euskal-errian martiririk izan bulitz aien berri emango zigun.

(2) *Los Euskaros en Alaba, Guipúzcoa y Navarra. L. de Velasco. P. Fidel Filta (S. J.)*

(3) Askok uste duten baño lenago nere irizinn.

(4) Nabarro Bilosladatar Franziskok, egoki aditzera ematen du esan degun au bere Amaya deritzayon liburuan.

auzi oek gnork amaitu zituan? Aranzazuko Ama Birjiñak. Bai; beste edozeñ neurrik eta alegiñak baño egokiago, Ama Birjiña Aranzazukoak, amabost-garren eunkidan Aloñako mendietan agertu zanean, zorioneko pakea Euskal-errira ekarri zuan; bada Ama guziz Santa onentzat jayera leun, gozo, biguñ eta osasungarria Euskal-errietan asi zanekeo, gizon gudari ayen biotzak samurtzen asi ziran, eta ordu arte alkarren etsai izan zirenak, Aranzazuko Amaren oñetan pake bearrekoa egin, eta anai onak bezela alkar laztandu zuren.

Amasei-garren eunkidan, Alemania-n, Ingalaterra-n, Franzia-n eta Suiza-n, erlijioaren kontra, Aita Santuari zor zayon menpetasuna ukatuaz, Elizaren seme prestu-ez batzuek agertu ziran. Orduan Protestateen seta galgarria sortu zan. Gure egunetan ekusten diran naspilla guziak ordutik datoz. Euskal-erriak ereji edo seta gaizto oni, iñoiz, gaurdaño benepeiñ, ez dio lekurik eman; baizik bere errayetan sortu, eta here odola, eta bere zentzu, eta bere anima guztia zedukan semea, garai artan izaudu zan gizonik aundi eta pizkorrena, santu paregabea, Loyola-tar Ignazio aundia, Jesus-en lagunkida jarri zuana, Euskal-erriak Elizari eman zion. Eta Ignaziok bere semeakin, gezurrezko dotriña char ayek oñazpiratuaz, eta Aita Santuari zor zayon menpetasuna itzez eta egitez erakutsiaz Eliza garailari atera zuan. Eta Loyola-ko zaldun noble, leyal eta biotzdun au Euskaldun garbi garbia zan, ez odolez bakarrik baita-re griñaz eta zaletasunez. Bere borondate aundi eta irmoak, Jaungoikoaren ourarako zerbait egin bear zanean, ezerk ere menderatzen ez zuan borondate ark, argiro aditzera ematen du Loyola-ko Ignazio Euskaldun garbia zala.

Jaungoikoaren bideak miragarriak dira. Protestateen seta gaiztoa zala bide erriren batzuek Eliza Ama doatsuaren amoriotik alderatu ziran. Orduan Elizatik alde egin zutenak ordaintzeko, Jaungoikoak millaka eta milloika seme berriak Amerikan, Asian eta Afrika-ko lurretan bere itzalpe gozora ekarri nai izan zituan. Orduan agertu zan *misiolaria*, gizon miragarri ori, Jaungoikoari eta lagun urkoari dion amorioagatik, bere guraso, senide, lur, aberastasun eta egoera au guz-

(1) *Historia de la Imagen y Santuario de N. S. de Aranzazu, por el Dr. D. Julián de Pastor y Rodríguez, Catedrático Decano que fué de la Universidad de Oñate.* Orain urte guchi dirala ill zan Madrid-en gizon prestu, kristau piñ eta leyal au. Aranzazuko Ama Birjiñak pagatuko zion, nere iritzian, betlko zoriontasunaz lurrean izan sion jayera biziya. Oñaz'tar eta Ganboa'tarren arteko guda, nondik nora sortu zan, eta orduko gertaera negargarriak jakin nai badituzu, irakorri orazu Echegarai-ko Karmelo'ren liburua. *Las Provincias Vascongadas á fines de la Edad Media.*

tiak lagata, urrutietarako lurretara dijoan gizon ori, au fede santua erakustera, eta bear bada bere odola gogoz isurtzera.

Eta eginkizun onetan ere Euskal-erriak erlijioari bere ongi-naya agertu dio, bada bere lurretik, lanbide santu onetarako seme asko irten ziran. Euskal-naparra zan, orduan da gero ezagutu dan misiolari-rik aundiena, Jabier-go Franzisko Santua; eta probintzi onetako semeak ziran Asenzio-ko Martin, Erkizia-ko Domingo. Lizardi-ko Julian, guztiak misiolari aundiak, eta erlijioaren alde euren odola isuri zuten martiriak, lenengo biak Japon-go erreinuan eta irugarrenak Ameriketan.

Amazazpi-garren eunkidan, munduan fedea irazotzeko eta itzaltzen zijoan amorioaren sua kristauen biotzetan pistutzeko, Margarita Maria Alakoke izena zuan monja bati, Jesus'en Biotz maitagarria agertu zit-zayon esanaz : «Ona emen mundua ainbat maitatu duan Biotza, eta aĩn gaizki munduak eranzuten diona. Maitatu ezazute. Au da nere amorioak egiten duan azkeneko deya.»

Jesus'en Biotz maitagarriaren dei au betetzeko, predikatzalleak bertatik asi ziran debozio eder eta osasungarria au alde guztietan zabal-tzen, fruitu ugariak bilduaz.

Eta orain ere Euskal-errian, Biotz santu onen amorioan suturik, debozio onen Apostotuak izan ziran. ¿Eta nork ezdaki oen artean, aurren-aurrenekoa, Ernani, erri prestu onetako semerik aundiena, perlarik ederrena, arripiñ balioso, Kardaberaz-tar Agustin doatsua izan zala? ¿Nork ez du maite biotz biotzetik erlijioso santu au? Gizon miragarri au ume umetatik garbitasunik aundienean, aingeruen garbi-tasunean bizi izan zan au, Jaungoikoari oso bere biotza emanik? Beĩn batean Ama Birjiña bera agertu zit-zayon eta agindu ere zion Jesus'en lagunkidan sar zedilla. Bere Zeruko Ama'ren agindua zintzo bete zuan, eta Erlijioan sarturik, emen luzaro bizi izan zan bere anai guziai ejen-plo ederrak emanaz. Jesus'en Biotz Santua ere agertu zit-zayon, eta an, bere artan sarturik, Agustiniñen animak zerutitako gozamen aundiene-takoak eta extitsuenak izan zituan Apaiz eginda gero, probinzi one-tako erririk geyenetan misio santuak ematen sayatu zan. ¡Misio go-goangarriak, ainbat ondasun gure errietara ekarri zituztenak! ¡Zenbat justuk bertuteko bizitzan etzuten iraun, eta zenbat gazte Jaungoikoa-rengana etziran biurtu! Aomen aundikoak, eta prufu asko erakarri zutenak izan ziran Aita Kardaberaz-ek probinzi oetan emandako mi-sioak. Onek zabaldu zuan Gipuzkoan Aita Mendiburu lagun zuala

Jesus'en Biotz santuarekiko jayera, eta gure elizetan oraindik dirauten Jesus'en Biotza'ren anaikidak onek jarriak dira. Liburu asko ere, animen onerako inzkribatu zituan, eta ainbat lan egin ondorean borchaz deserritua, Italian ill zan, santutasunaren usai gozoa alde guzietara banatuaz (1).

Alaitu eta poztu zaite bada Ernani'ko erri noblea onelako seme aiñ miragarria, aiñ Jaungoikotsua, ainbat gure probinzian maite izan zuana, Elizari eta Euskal-erriari eman ziondulako : begira zayozu zure umant audienari lez, eta bere gorputzaren autsak, Eliz onetan daukatzunak beti onratu itzatzu.

Esan diran gauza oek adierazitzen dute argiro, Euskal-erria beti izan dala erlijiosoa, fede bizikoa eta Eliz Ama Santa biotz guztiak maitatu izan duana; eta oraindik onen argibiderako begiraldi bat gure mendietara egin dezagun. ¿Zer diote mendi tantayetan ekusten diran, eta bertako lurrak ainbat alaitzen dituzten ermita edo elizacho churiak? Eta, ¿zer diote probintzi onetako erririk geyenetan dakuskun Eleiza oek berak, aiñ aundiak, aiñ ederrak, aiñ neurri egokian egiñak ain egoki apainduak? ¿Zer diote Eliz oetako aldare urrerik piñenakin urrezatuak, eta gurutzea zerurontz begiratuaz daukaten ezkil-dorre liraiñ oek? ¡Al gauza oek guztiak diote Euskal-erria beti fede santuan bizi izan dala, eta fede santuaren sustrayak eta erroak bere animaren barren-barrenean gorderik eta itsatsirik daukala. ¿Zer diote Euskal-errian jayerarik audienaz onratzen diran imajiña beneragarri oyek? Eunkida asko da Euskaldunak imajiña miraritsu oyen oñetan belaunikatzen direla; Aranzazun, Itziarren, Guadalupen, Liernian, Zikuñagan, Izaskunen, eta Lezo, Ernio eta Aitzkorriko gurutz santuen arrear; eta ori gure probintzi onetatik irten gabe, bada beste Euskal-probintzietan ere orobat eta oparo orrelako imajiña beneragarriak arkitzen dira.

Oraindik ere, gure egun zorigaiztoko oetan ere, ¿nun Euskal-erriko pamilietan bezin irmo eta zintzo Jesukristoren fede santua gordetzen da? ¿Nundik Euskal-erriatik ainbat gazte erlijioetara, konbentuetara, Jaungoikoa serbitzera eta zeruko doayez euren animak aberastera dijoaz? ¿Nun daude emen ainbat pralle-eche eder edo bakartegi? ¿Nun egiten dira emen bezaiñ Eliz-puntzio ekusgarri? ¿Nun egiten

(1) *Compendio de la vida del P. Agustín Cardaveruz, de la Compañía de Jesús, por el P. Julián de Fonseca, de la misma Compañía.*

dituzte emen bezelako erronmeriak Euskaldunen biotzetan fedea gordetzeko eta bear danean aitortzeko? Esan dezagun bada, Euskal-erria izan dala erri erlijiosoa, fede bizikoa, eta oraindik ere, ainbat naspillaren erdian, eta naiz ta, non nai, alde guztietan, fedearen kontra etsai gogorrek sortu, Euskal-erriak izan nai duala kristau garbia, katoliko piña, Elizaren seme leyala; ez duala nai fede santuak mendi oetatik alderik egin dezan, eta sinismen onetan nai duala bizi ta ill (1).

II

Baña esan det, Euskal-erriak justizia gorde eta maitatu zuala bere lege ederretan, eta orain au goaz ekustea.

Euskal-erriko legeak bear bezela ezagutzeko, gauza batzuek kon-tuan eduki bear dira, bada gauz oek, zer-ekusi asko izan zuten lege ayeke egitean.

Oek dira: Euskaldunak askatasuna beti maite izan duala, eta ez duala egundaño besteren uztarpean bizi nai izan. Euskaldunak beste erriak baño obeto gizonaren balioa ezagutu dutela. Euskal-errian pami-liak begiramen aundia izan duala eta gorde izan dala garbi. Euskaldu-nak alkartuaz bizi izan direla beti, baño alkartasunak ez dituala Eus-kal-errian beste eskubiderik izan, guztien onerako bear zituan eskubi-deak baizik, etn onegatik Euskal-errian ala gizonari nola familiari, eta erriari dagokien eskubiderik ukatu etzayola.

Esan det lenbizi Euskaldunak beti askatasuna maite izan duala, eta orregatik erri onek besteren uztarperik ezagutu ez duala. Erri au etzuten menderatu ez Grezia-tarrak, ez Fenizio-ak, ez Katago-tarrak. Erroma-tarrak menderatu nai izan zuten, asmo onekin *Octavio* Erro-ma-ko Jauna, eta Erroma-ko *aronak*, anziñako kantan dioen bezela, onera etorri ziran, baño *Octaviano* gañotu, bertan bere gudari pizko-rrenak utzi eta Erroma-ra biurtu zan. Bi aldiz Erroma-tarrak Euskal-dunakin guda gogorrean ibilli ziran, zazpi urtez bigarrenean, baño Ebro aldeko landa eta lur zelayetan bizi ziran Euskaldunak mende-

(1) Onen argibiderako, beste mila gauza ere esan ditezke, baño itzaldi batean onetarako astirik esdago. Ordea emen bi aitormen egiti nai ditut, oen orolmenak Euskaldunentzat atse-gingarriak diralako. Lenengoa: Cipuzkoako Elkarte edo Juntak, Ondarrabian 1630-gurren urtean erabaki zuten, urteoro Elkarte edo Juntak biltzen siranean, errietako *Procuradoreak* juramentuaren azpian aitortuko zutela, Maria, Jesukristoren Ama, bere sortzean, pekatu jatorriskoa gabe sortu zala, eta sinismen au beti gorde eta eskudatuko zutela. Bigarren: Zu-maya-ko Elkarte edo Juntetan, Probintziak Loyola-tar Ignazio bertako Patroitzat artu zuen. Eta onela Ama Maria guztiz garbiari bere sortze garbian, nola Aita Ignazio Santuari, Juntak edo Elkarteak irausun zutenarte urteoro Eliz-punzio otsaundikoak egiten zitzaizen.

ratu bazituzten ere, emen, mendi tarte oetako Euskaldun indartsuak eztatuzten garaitu eta menderatu (1).

Nayago zuten garai artan Euskaldunak euren askatasuna galdu baño gurutzean ill.

Eta ala diote kondairatzalle batzuek, Euskaldunak pozik ta alai gurutzean illtzen zirala Erroma-tarren mende ez gelditzeagatik (2). Ez Godo-tarrak, ez da mairuak ere Euskal-erria menderatu etzuten, eta orregatik bizi izan beti bere buruaren jabe.

Esan det bigarren, Euskal-errian beste erri askotan baño obeki gizonaren balioa ezagutu izan zala, eta ez arrazarik, ez kastarik, ez katiburik etzan emen ezagutu Euskaldunak besteren mende etzuan bizi nai, baño etzuan ere besterik menderatu eta katibatu. Euskal-errian familiak begiramentu aundia izan zuan. Familia da giza-bille-raren zimendua. Familia sano, irmo, gogor, mardul ta garbi dadukan erria, iraunkorra eta aundia da (3). Euskal-errian familia agertzen zaigu erreinu chiki bat balitz bezela, bere errege, bere erregiña eta bere mendekoakin. Familiaren buru egitendu *Echeho-jaunak*, baño ez Erroma-tarren eta beste erri askoren antzera, baizik Jesukristoren le-

(1) Erroma-tarrak Euskaldunakin guda an nsitzean, *Jaño* gezurrezko Jainkoaren Eliz-echeko ateak iriki zituzten, onen laguntza iriobi nayan. Guda arliskatu eta neke aundikoetan bakarrik Eliz-echeko onetako ateak irekitzen ziran Diotenak badira: Erroma-tar eta Euskaldun-
nen edo Kantabroen guda amaizuta, Janoren Eliz-echeko osteran ichi zanean, Jesukristo gure Jauna, munduaren salbatzallea Belengo estalpean jayo zala (*Juan Bautista Palma Kardena-lak bere kondairan dio ezetz*). Erroma-tarrak, mendi oetan bizi ziran Euskaldunak mende-ratu etzizutela esateko daukagun arrazoyak jakin nai hadituzute, irakorri ezazute beste liburu askoren artean Gurruchaga-tar Asumzio Apaiz Jaun ta beneragarriak Bitoriko (lenago Gasteiz) azitachean 1891-garren urtean irakorri zuana. Orain gure mendietan, orda-onuntz, badabilta norbaltzuk Erroma-tarren arrastoren bat arkitzen ote duten; orlako arra-torik izan balitz gaur-gero arkitu zan. Erroma-tarrak Burunda eta Barrankatik aurrera zuten euren bidea Gasteiztik Iruñera eta Iruñetik Zaragozara juateko; baño bide orretatik ezker-ekubiko mendietan Euskaldunak bizi ziran Erroma-tarren legerik ezagutu gabe. Ex diogu Euskal-erriari zor ezayonik eman bear, baño ez da kendu ere zor zayonik.

(2) Euskaldunak gurutzea, Jesukristo gure Jauna bertan bere odol guxtiz ballosoa lahuri baño lenago, maitatzen eta adoratsen zitela eta euren handeretan zeramatela, zerako argiz erakutsirik baleude lex; diote Estrabonek eta Paulo Orosiok. Eta inzkribatzalle oek etziran motelak, balak zer eta nola esaten zuten bazekitenak. Badira ala baño an ukatzen dutenak, esanaz: Orosio eta Estrabon ez dirala nor ori sinistu eraglitako.

(3) Jentil-erriak galdu ziran, bertako familiak usteldu eta griña galzioz lehusitu ziralako, Jaungoikoak emanikako lege gurbiaz aztu ziran eta ortik etorri zan familiaren galmena. Jaungoikoak paradisuan familiari iru lege edo doay eman ziozkan: *Unitas, indisolubilitas, societatis*. Erri ayek irurak onaxpiratu zituzten, eta oitura on guzien iturburu santua izan bear zuna familia, galzakeri guzien iturri izatera biurtu zan. Bide ori bera daramate gure denbora oetako erriren batzuek, eta neurri egokirik artzen ez bada laister fruitu garratzak bilduko dira. Euskal-errietan ez zan zorionean orrelakorik gertatu, orregatik emengo pami-lia errespeta garria izandu da. *Vide Gaume. Historia de la Sociedad doméstica en todos los pueblos antiguos y modernos.*

geak agintzen duan lez. *Echeko jaunak*, ez neurri gabeko aginpidea, baizik amoriozko agintea zedukan. Emaztea zan echeko-jaunaren laguna eta ez serbitzari eta mendekoa, senarraren diñatasunean edo agintean beraren antzekoa, eta orregatik deitzen zitzayon *Echeko-andrea*, echeko erregiña balitz lez. Seme-alabak euren gurasoakin bizi ziran, oek zegokion bezela maitatu eta errespetatuaz, eta echean akitzen ziran Jaungoikoaren beldur santu eta oitura garbietan. ¡O Euskal-erriko pamili garbi, zintzo eta beneragarriak! Orain zñun zerate? ¿Non dira orain anziñako *Echeko-jaun* eta *Echeko-andre* errespetagarriak? Arako Altabiskarko kanta gogoangarri ayetan esaten danean: *Echeko-jaunak* ekustean erbestekoak zetortzela, echeko atarira irten da esan zuala: «¿Sort-aldeko gizon oyek onera zertara datoz? Jaungoikoak mendiak egiñ zituanean, gizonak oek ez igarotzea nai izan zuan.»

Itz oek irakortzean iduritzen zait, *Echeko-jaun* au, errege aundi eta noble baten iduri edo antzekoa agertzen zaidala. Eta nere begiak ekustean Euskal-erriko *Echeko-andrea* bere estalki zuri garbia buruan, bere ille mordo ederrea oñetaraño, bere soñ chukunaz, aiñ bear gille, ain echekor, ain onestidade aundiaz, ain jaungoikotsu; iduritzen zait erregiña batek lez, urrezko koro bat, arri piñez edertua bere buruan daukala.

Pamilia ondo zimendatua dagoan erria, zorioneko erria izan oi da, bada erriak pamilietatik datoz, eta orregatik da pamilia erriaren gaya; eta oek gobernatzeko ere Euskal-errian lege ederrak izan zituan. Ayuntamentuak zituzten emen orretarako bear ziran eskubide guziak, erriari dagokiona erabakitzeko. Eta emendik, Euskal-erriak beste errietara Ayuntamentuen eskubide oek zabaldu ziran. Inlaterra-ko kondairatzalle batek onela dio. Emengo Erri-echeak berak aditzera ematen dute, gogor eta mardul bizi izan zala emen Ayuntamentua. Erriaren buru Alkateak egiten zuan. ¿Eta nork ez daki nolako begiramentu eta errespetoa izan zitzayon beti Euskal-errian Alkate jaunari? Eta ez beldurrez, baizik amorioz, Alkatea erriko guraso nagusia zalako, eta bere mendekoen amorioak, kastiguaren beldurrak baño obeto onen aginpidea irimotzen zualako. Orregatik gure errietako Alkateak eramaten zuan, eta oraindik ere darama zigor bat bere aginpidearen siñaletzat, adieraziaz zigor chiki bat emen asko dala oker dabillena zuzentzeko. ¡Gauza miragarria, erbestakoak ere ainbat arritzen dituana, oraindik egun guchi dirala, Alimaniako Prinzipeak Donostian esan zuan be-

zela (1). Emengo legeak oso zuzenak eta gayak ziran Euskal-erria guztia gobernatzeko. Lege oyen arauaz, Euskaldun guziak ziran berdiñak jatorriz ta odolez, Ayuntamentuetan izan oi diran kargu guztietako (2), orregatik iñon erria berez gobernatu bada, erri au Euskal-erria izandu da. Erriak elkartzen ziran urteoro egin oi ziran Elkarte edo *Junta*, gogoangaarrietan, eta an urterako Diputadu edo probintziako Burua aukeratzen zan. Billera edo Junta oetan Probiintziari zegokion guzia erabakitzen zan, eta bere eginpidea bukatzean, urrengo urteko Juntetan, kontu zorrotza eskatzen zioten eta eman bear izaten zuan. ¿Non ekusi da orrelako legerik? Orain esaten da *democracia* bear dala, au da, erriak berez, bere gauzak gobernatzeko eskubidea. Eta erriak bere burua gobernatzeko, Euskal-erriak baño eskubide aundiagorik ¿nork izan du? ¿Non ekusi da zapatari bat, probintzi guztiko aginteak zituan billeraren buru egiten? ¿billera artan probintziko gizonik aberatsenak eta abillenak ziralá? Au ez da ekusi iñon Euskal-errian baizik, eta oraindik gizaldi asko ez direla (3).

Gauza nekeza izan oi da, erriak gobernatzeko egiten diran lege'etan, beardan neurrian, agindu bear duanaren eta mendean egon bearduanaren eskubideak ezartzea; bada erraz batari kendu eta besteari eman lezayoke, kendu eta eman bear etzayona. Euskal-erriko lege'etan denen eskubideak egoki neurtuak zeuden; eta au da gure erlijio santuak gai onetan agintariai erakusten diena: Euskal-errian, jabetasun, nagusitasun edo aginpideren batekin zegoana, oso begiratu zan gauza guztietan, eta erria gobernatzen zan ez aginte gogor eta latzakin baizik leuntasun eta amorio aundiaz, pamili baten araurera; argatik emen probintziari «Ama-probintzia» deitzen zitzayon, bertako guziera guraso maitea balitz bezela; eta ama baten biotza beti gozoa eta biguña da bere sementzat, eta au dala bide, Euskaldunen batek, probintziari eskabideren bat egin bear izaten zionean, amaren izereaz deitzen eta eskatzen zion. ¿Agintari baten alde gauza ederragorik esan diteke?

Beste zenbait gauza alde bat utzita, denak zero esateko astirik ez dedalako, bat benepeñ esan gabe ez det laga nai; eta da: Euskal-erriko lege miragarrien zuzentasun, egokitasun eta edertasuna, erri

(1) Prusia-ko Enrike Prinzipeak.

(2) Bizcaya'n, aginpiderarako noblezasunaren agirik etzan bear, bizkaitarra izaten naikon zan. Gipuzkoan agiri ura bear zan. Bañan gipuzkoatar guziak nobleak ziralá, beñ baño geyagotan erabaki zan. Onela diote Larramendik, Gorosabelek, Marichalarok eta Manrikek.

(3) Egaña-tar Pedro Jaunak Senaduan 1804-garren urtean egin zuan itzaldian.

bat aundi egiteko gai diran lege oek, guk baño obeto erbesteko jakintsu askok ezagutu eta alabatu izan dituztela. Franzia-tik biraldu zituzten Diputaduak lege oek ikastera, baldin bazitekean, bertara eramateko. Ingalaterrako jakintsu batek zion, Ingalaterrako erriak gure legetatik artu zutela euren legetan dauzkaten gauzik ederrenak. Eta beste Ingeles aditu batek, Euskal-erria izan dala Europa-ko eskubide edo askatasunen siaska ta iturburua, eta Europa-ko lege guztiak ikasita, aitortzen du beste batek, Euskal-erriko legeak Suiza-koak baño oraindik obeagoak dirala. Erbestekoak gure lege ederren alde aitortu dutena adierazi bear banu, itzaldi au dan baño luzeagoa izango litzake, eta emen gelditzen naiz esanaz : Euskal-erria bere lege miragarrietan aundia izan dala (1).

III

Esan det, leenaz gañ, Euskal-erriak oitura eder ta garbiak izan dituala, eta au, esan dedanetik, berez datorren egia da.

Erljioa maitatu eta gordetzen duan erriak oitura garbiak izango ditu.

Pamiliaren prestutasuna gordetzea sayatzen dan erria, prestua eta onradua izango da.

Baserria, bere jayot-echea maite duan erria, biotz onekoa eta gaitzik gabea izango da.

Euskaldunak guzien gañ Erljioa maitatu du; maitatu ditu ere gauzaria gozagarrienak lez pamilia eta bere baserria, eta orregatik izan ditu oitura garbi eta gaitzik gabeak.

Euskaldunen jayot-echea baserria izandu da. Baserrietatik erriak sortuak dira. Eta Euskalduna alai ta pozik munduko gauzen kupidarik gabe, pakean bere baserrian, anche bakar-bakarrik bizi izandu da.

Euskalduna langillea izandu da; eta bear ere bai, onen lurrak eskasak eta guchi diralako, eta bizitzeko, eta bear dana lurretik sortzeko, nekatu bear du izardia oparo atereaz; au dala bide, beste leku askotan, lur aberatsago eta ugariagoak dituzten erriak baño nekazaritza ohea emen egiten da (2). Nekazaritza aipatu dedan ezkeroz, esan gabe ez

(1) Erbestekoak gure lege'en alde esan dutena jakin nai badezu, irakorri ezazu Ramorytar Liborio, zaldun prectuak *El Liberalismo y los Fueros Vascongados* izendatzen dan liburu ospatsuan esan zuna. Eta baita ere, Donostiako *Euskal-Erria* deitzen zayon albistan gai oní dakogion berri asko arkituko dituzu.

(2) Kordobako Eliz-nagusiko Kabildo edo Kanonigoak alkurturik, 1835-garren urtean, Gobernuzari biraldu zion inzkribu batean esaten zion : Euskal-errian, naiz lurrak beste senbait lekutan baño eskasagoak izan, eta naiz amarrenak, ifun baño zintzoago pagatu, emen lurrari, geysgo ateratzen zintzayola, nekazaritza ohea egiten zalako eta aurreratua zegoalako

det laga nai, erri onetako seme batek nekazariari egin zien mesede goyenekoa. Kondairak dio, Ernani'ko Perkaiztegitar Gonzalo Jaunak Amerikatatik *artazia* onera ekarri zuala, eta emendik beste errietara zabaldu zala; eta esan ere ezin diteke zenbat mesede egin dion nekazari eta langillei azi au onera ekartzeak (1).

Euskalduna eza nekazaritzan bakarrik sayatu, baizik *industri* edo pabrika lanetan ere bere trebetasun aundia aditzera eman du; au aditzera ematen digute anziñako olak eta orain ekusten diran pabrikak.

Euskalduna izandu da beti pakeosoa, eta ez-baida edo auzirik nai izan ez duana.

Au-dalabide Euskal-errian beste errietan ainbat oker eta bidegabekeri ekusten ez dira, baizik beti pakea eta alkarrenako naitasun eta errespetoa erbestekoak eurak aitortu izan duten lez.

Euskal erriko emakumea, inzkribatzalle arroz barek dionez (2) onestidade aundienekoa da, bere ourari dagokion gauza guztietan guztiz begiratu, ehekoya, langillea, garbi ta chukuna; orregatik zayo errespeto aundia.

Emengo jolas eta dantzak berak, anziñako denboretan garbiak eta begiramentu aundikoak ziran, lizunkeri gabeak, guztietan garbitasuna agertzen zutenak. Oroimengarriak dira gazteak plazan, erriko *erretore* eta alkatearen aurrean keda jo arteraño dautzatzen ziran denbora ayek. Orduan etziran ekusten oraiñ zorigaiztoan ekusten diran lotsagabekeriak, eta gazteak euren buruai obeto begiratzen zioten garaiz ehetara bilduaz, zarrai errespeto aundia izanaz, gurasoak maitatuaz eta oen esan edo aginduaz zuzen gordeaz.

Gure Euskal-errian onelakoše oiturak izan ziran, erbestekoak aitortu izan duten lez.

Azkenik Euskal-erriak, seme argidotar eta aomen aundikoak izan ditu, ala gudetan nola jakinte'etan; emengo semeak izan dira biotz aundikoak eta adimentu argia izan dutenak. On izango litzake nik oetako batzuek aipatzea baña onetarako astirik ez dedalako, bat edo beste baizik ez dizuet aipatuko, eta oek Ernani'ko semeak izango dira.

Emengoa zan Urbieta-ko Juan, zaldizkoen kapitana, Santiago-ren Ordenako Zalduna. Onek Pranziako Errege lenbizikoa isasti edo *preso* egin zuan. Gertaera au norbaitek ukatu nai izan zuan, ordea Erregek

(1) Larramendi: *Coreografía de Guipúzcoa*.

(2) Balmar-ko Markesak.

berak aitortu zuan Urbieta-ko Juan-ek isasti zuala, eta isastitzean begiramentu aundia agertu ziola, biotz oneko zaldunak, etsai bat menderatzean izan oi dion lez. Emengo semeak ziran ere Urbietar Fr. Juan, Perkaiztegi eta Arbiza, irurak Eliz-Ama Santoren Apezpiku benegarriak. Iturriaga-ko Franzisko Apaiza, berso edo itz-neurtu ederretan irudi asko inzkribatu zituan ura ere erri onetako semea zan; eta onek somatuak eta ezarriak dira Ernani'ko *Kanpo-santuaren* atalburuan daudenak, eta Donostian eta beste zenbait errietakoetan irakortzen diranak :

«Laister esango da zuekgatik
Gaur esan oi dana gugatik
¡ILL ZIRAN!»

Oek eta beste orrelako seme leyalak gure erri maitea aunditu eta goyeneko mallara jaso zuten.

¡Orain Jaungoikoak zeruko zoriona deiela!

• * •

Ona argiro adierazi, Euskal-erriak Erljio santua maite izan zualako, justizia bere lege ederretan gorde izan zualako, ortik, oitura onak sortuaz, aundia eta doatsua izan zala.

¿Zer esaten digute guri, gaurko Euskaldunoi, gauza oek denak?
¿Zer erakuts-aldi atera bear degu?

Esaten digute, guk ere Euskal-erria eder eta aundi gorde nai badegu, gure aurrekoen on-arrastoai jarraitu bear diegula.

Euskal-erriarentzat beste biderik ez dago, Erljioak erakusten duan bidea baizik Euskaldunak Erljioak egin ditu aundiak; gure legeak, gure askatasuna, gure zoriona ortik sortu da, ta eskergaiztoak eta prestuezak izango giñake, baldin Jesukristoren Erljioaz aztuko bagiñake.

Munduan orain nasketa aundiak dabilltza; batzuek nai luteke Jaungoikoa alde bat utzita arrazoyaren aranz mundua gobernatu, arrazoyaren argiaz bizi. ¡Arrazoyaren argiaz! ¡A! ¡argi eskasa da arrazoyaren argia mundua gobernatzeko! Jaungoikoa alde bat utzi ezker ez dago, ez gobernurik, ez legerik, ez pakerik; ez dago gorrotoa, anzia, alkar ezin ekusia, eriotza eta gau beltza baizik.

Esaten badu bada norbaitek Euskal-erria maite duala baña ez gure Erljio santua, esango diot, ori ezin ditekeana dala, bada Euskal-erria

maite duanak, maitatu beor du ere, au aundi eta eder egiten duana, Erlijio santna. Gorde dezagun bada irmoki gure biotzetan Jesukristoren fedea, Jesukristoren Biotz santuarekiko amorioa; eta gaur iñoiz baño irmoago, Jesusi aurpegi ematea etsai asko sortzen diralako.

Maitatu biagu ere gure itzkuntz gozoa, euskera beneragarria, gure arrazaren siñalerik argi eta baliosoena; guziok alegiña egin biagu euskera bizirik gordetzeko, gure pamilietan, gure errietan eta gure baserrietan euskeraz itz egiñaz, eta bere alde egiten diaan lanai eran-zunaz.

Maitatu bear ditugu ere emengo oitura zar guztiak, erbesteko moldakaitz-charrak utziaz. Euskal-erria puzoitu eta usteldu ez dedilla, beste erri asko usteldu eta puzoitu diran lez, bada ala gertatzea, beste edozeiñ baño okerrago eta gaiztoago izatea etorriko litzake. Oitura gaiztoaz kutsutua dagoan erria ouraren diña ez da, eta bai edozeiñ zitalkerirako; bear bada besteren uztarpean katibu izateko da gai.

Ez dezagula gere biotza mundu onetako interesa eta aberastasun zirzilletan jarri, arako animari dagokion lege aundi ta ederrak alde bat utzita; Jaungoikoak ez du eragozten lan egiñaz eta bide zuzenetik interesak irichitzea, eragozten duana da, debekatzen duana da gure biotz guztia mundu onetako gauzetan jartzea, oek gure Jaungoikoa balira lez. Obe da interes guchi eta bide onetatik sortuak, asko eta bide okerretik datorzenak baño. Espiritu Santuak dio, artu-emanetan justuak izan gaitezela, eta lanbide guzietan zuzen jokutzen badegu, konbeni zaigun guztia Jaungoikoak emango digu. ¿Zer diot emango digu? (1) izatez ere, ematen digula bearnuen esan. ¿Menturaz, orainche ere, Jaungoikoak Euskaldunai ematen ez die beste erri askori baño geyago? Euskaldunak gai onetan ezin arrenkuratu ditezke. Begira beza beste erri askotara eta ekusiko du, erri asko ta asko Euskal-erria baño eskasago bizi direnak, emengo egoera onik gabe. Euskaldunak Jaungoikoari millaka eskerrak eman bear dio, amoriozko begiz begiratzen diolako, eta eskuak betean ondasunak ematen diozlako.

Egin dezagun alegiña guztia sustraitik ateratzeko emen sartu nai liguketen eta sartzen dijoazten oitura galgarri batzuek, esaera moldakaitzak, Euskal-errian egundaño entzun ez direnak, dantza ichusiak eta beste onelako zenbait nabarmen.

(1) Aita Bineeso-tar Jose-k-Mondragon egin ziran lenengo Euskal-pestetan egoki asko esan zuan bezela.

Eran geyegiak gizona ichusitzen du, zabartzen du, bere adimentua illuntzen dio, eta osasuna ere denporaz galtzen dio. Eta dantza ichusiak, erbestetik onera ekarri diran oyek, lotsagabekeria eta gazte askoren galmena baizik ez dakarte, eta orregatik zeoro Euskal-erritik, arras-torik ere utzi gabe ayenatu bear dira. Seme-alabak, anziña oitura zan bezela garaiz echera bildu bitez, eta errespetatu bitzate errian buru egiten dutenak eta euren guraso zarrak. Jar dezagun konpianza guzia gure Diputazio oso goitituan, eta orain arte bezela aurrera ere gure Probintzi maite onen alde lan egiten sayatuko dala sinis dezagun.

Itz batean : Euskaldun onak, Euskaldun garbiak izan gaitean, eta onela gure erri maitearen zauriak nolerebait sendatuko dira, eta berri-erri ere eder da mardul gure *arbola santua* ekusiko degu, alde guztietara bere itzal ongillea eta bere fruitu gozoak zabalduaz.

Fede bizia baldin badegu
Gure biotz t'animetan
Pakez oraindak biziko gera,
Mendi eche ta ibarretan.

Gure bersolaririk aundienak esan zuan lez.

Bai, Euskalduna : guztiok elkartu gaitean gure erri maitea aundi ta eder gordetzeko eta nun nai, onra aundiaz, Euskaldunak gerala esan dezagun.

Biotzean gurutzea
Eskuan bandera
Esan lotsarik gabe
Euskaldunak gera.

Eta Jaungoikoak, Euskaldunak euren baso, lur, eta mendietatik ainbat amorio izan dion Jaungoikoak, dena dezakeana bezela, erioaren pisuz gure begiak ichitzen ditugunean, zeruan betiko zoriontasuna emango digu : eta au da denoi biot-biotzetik opa dizutedana. ALABIZ.

Victoriæ 21 Decembris 1909.

IMPRIMATUR :

✠ *Joseph, Episcopus Victoriensis.*

(Hay un sello que dice : -Obispado de Vitoria.-)

The first part of the report deals with the general situation of the country and the progress of the work done during the year. It is followed by a detailed account of the various projects and the results achieved. The report concludes with a summary of the work done and a list of the names of the persons who have been engaged in the work.

The second part of the report deals with the financial statement of the year. It shows the total amount of the income and the expenditure and the balance at the end of the year. It also shows the details of the various items of income and expenditure.

The third part of the report deals with the accounts of the various projects and the results achieved. It shows the progress of the work done and the results achieved in each project.

The fourth part of the report deals with the accounts of the various persons who have been engaged in the work. It shows the names of the persons and the amount of the salary or wages paid to each of them.

[The text on this page is extremely faint and illegible due to fading and bleed-through from the reverse side. It appears to be a multi-paragraph document.]

AK
OBS
2-91



